

1. testua: Dietista-Nutrizionista profesioaren baitako deontologia. Artikulua: Molina Restrepo, M. E. (2004). La ética en el ejercicio del nutricionista-dietista. Invest. educ. enferm, 22(2), 138-149.URL:
<http://aprendeonlinea.udea.edu.co/revistas/index.php/iee/article/view/2958/2657>

Etika diziplina filosofiko eta ariketa praktiko gisa

- Etikak bere lanbidearen ohiturak eta hauen balio moralak ulertzeko eta betetzeko baliabideak ematen dizkio profesionalari. Horrez gain, egoeraren arabera lanbidearen arauak, ohiturak eta balio moralak mantentzeko edo aldatzeko aukera ematen dio, beti bezeroen, lankideen eta bere ongizatea berma dezan.
- Baina garrantzitsuena, etika praktikara eramatea da, hau gabe etikak ez baitu zentzurik. Gainera, beti barne eta kanpo onurak independenteki bermatzea oso garrantzitsua da, kanpo onurak barnekoak ordeztu ez ditzan.
- Etikaren bitartez, profesionalen kalitatea eta hauek erabiltzen dituzten baliabideak ebaluatu ahal ditugu. Gaizki dagoenak eta gauzak ondo egiten saiatzen den pertsonak etikarekin ere zerikusi handia du.

Etikak 2 dimentsio ditu, bata teorikoa eta bestea praktikoa:

- Teoria→ arauak bete, pertsonak errespetatuz eta beti ere, pazientearen ongizatea bilatuz.
- Praktika→ profesionalki lortutako esperientziaren bitartez etika praktikan jarri. Horretarako moralak zer den ezagutu behar da, ongia egin eta modu zuzenean, etikoki eta moraltasunez jarduteko (iruzurrik egin gabe).

Giza eskubideak errespetatu, Nazio Batuen Erakundeak (ONU) 1948an onartutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasota.

Eskubide horien artean barneratzen dira elikadura, nutrizioa eta osasuna bermatzeko eskubidea (pobreziaren ondorioz desnutrizio egoeran dagoen populazioa)

Etikaren eta bioetikaren lengoia batzuk, oinarri gisa

- Etikaren barruan bi kontzeptu planteatzen dira: duintasuna eta giza eskubideak (ONU). Duintasun hori defendatzeko, autonomiarako eta konfidentzialtasunerako eskubidea babestu behar dira. Horrela, onura-kalteak mailari eutsiko zaio, onuraren alde.
 - Giza duintasuna→ Pertsona guztiak eskubide berdintasunez tratatu beharko dira, sexu, adin, arraza... dela eta, inolako bereizketarik egin gabe. Informazioaren/datuen konfidentzialtasuna eta norbanakoaren autonomia errespetatzea.
 - Giza eskubideak:
 - Errespetua
 - Ongintza-ez gaizkintza
 - Justizia
- Gainera, nutrizionista-dietista baten lanean errespetatu beharko liratekeen oinarriko printzipio etikoak aipatzen ditu: errespetuaren printzipioa, onurarena eta justiziarena. Errespetuaren printzipioaren barruan; banakotasuna, autonomia, pribatutasuna,

bakartasuna(bakoitzaren egoera kontuan hartzea) eta fidagarritasuna egongo lirateke.

- *Banakotasuna*: pertsona bakoitzaren kultura, sinesmenak eta baloreak
- *Autonomia*: erabakiak hartzeko eta iritzia emateko askatasuna
- *Pribatutasuna*: sekretu profesionala/isilpekoa
- *Berezitasuna pazientearen integritatea*: ohiturak eta sinesmenak, egoera pertsonala eta baldintza ekonomiko eta sozialak kontuan izan eta errespetatu
- *Fidagarritasuna*: adostutakoa betetzeko
- **Ongintza ez gaizkintzaren printzipioa**→ pertsona eta ingurumenari kalterik ez eragitea (aspektu ekologikoa kontuan hartuta)
- **Justiziaren printzipioa**→ berdintasuna lortzeko, beharrezkoa da batzuetan tratatu desberdin bat ematea (berdintasun eta ekitate arteko oreka)
- Azken finean, atal honetan azaldu nahi dena da garrantzitsuena dela pertsona bakoitza behar bezala tratatzea, bere eskubideak eta printzipio etikoak lehenetsiz. Azkenean, pertsona bakoitza helburu gisa tratatzeko, eta ez bitarteko gisa, bakoitzaren baldintzak beti kontutan hartuz eta haiei egokituz.

Elikadurarako, nutriziorako eta osasunerako eskubidea

- Norbanako eta kolektibo profesional gisa, nutrizio, elikadura eta osasunerako eskubideak gizartean presente egoten laguntzea da gure erantzukizuna.
- Honen inguruko hainbat akordio daude, esaterako: 1948-ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 25-garren artikulua, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna... Baina nahiz eta hauek garrantzitsuak diren, praktika profesional egokia baldintzatuko duen faktorerik erabakigarrienak bakoitzaren sentimenduak, jarrera eta konbentzimendua dira.
- Honetaz gain, ikerketa klinikoaren bidez, gure esku-hartzeek arazoak konpontzen dituztela, pertsonei hobeto egoten laguntzen dizkietela, haien buruen perspektibak gaindituz... Frogatzea konpromiso indibiduala da profesional gisa eta gremioarekiko.